AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSASUN SAILA

5356

222/2016 DEKRETUA, abenduaren 13koa, Osasuneko sailburuordea kargutik kentzea xedatzeko dena.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 18. artikuluko j) idatzi-zatian, 26. artikuluko 6. paragrafoan eta 29. artikuluan ezarritakoaren arabera, Osasun sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2016ko abenduaren 13an egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Guillermo Viñegra García jauna sailburuorde kargutik kentzea, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

2. artikulua.– Dekretu honek 2016ko abenduaren 13tik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko abenduaren 13an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Osasuneko sailburua,
JON DARPÓN SIERRA.